

# TXUKUNERIA

---

1. *Txukuneria* ta *Katharinitis* zer diran.—2. Zergatik ni erizain.—3. Nere EUSKAL-IZKINDEA.—4. Eri sendatua.—5. A. Soloeta-ren *Ensayo de la unificación de dialectos baskos*. Lautzuk bere gai beñienak.—6. *Lenengo gaia*: Aditz muñak (núcleos verbales). *Za* beste muñ askoren orde.—7. Beste izkeretako muñ-aldatzeak: erderaz ta latinezkoak.—8. *Bigarren gaia*: izenordeko-adizkiak (elementos pronominales del verbo). Adizkizunak (elementos objetivos).—9. A. Soloetaren uestezko *d, z, j, l, tz*: *etortzen da, zait, jat, litzake ta ikusten deutzazu*.—10. Adizki egileak (agentes).—11. Adizki arkaiak (elementos recipientes del verbo).—12. ¡*Gizonak, gizonak, gizonak, gizonak!*—13. Irugañen gaia.—14. Laugañen gaia.—15. Izuñia euskeraren eraietan orain eta len; edo gaurko txukuneria ta orduko *panvasquismo*. Astarloa ta Larramendi.—16. Tiberius, Segismundo, Federico aundia ta Napoleonen emazte Eugenia.—17. Lekeitioko Elizan.—18. Il-yantzia.—19. Kopurudi leneratua (Numeración restaurada).—20. Bide onera.

---

# TXUKUNERIA

---

1. Orain zar edo beintzat zarxko geranok mutil gazte ginanean, etzan monja erizainik kalerik kale egun auetan bezela ikusten. Gaitz itsaskoñen bat — esaterako, baztanga naiz sukarustela (tifus) — norbaitek zuenean, len gaitz oriek izandako bat edo bat eramaten zioten gaixoari laguntzat... Baztangadunen etxean aurpegi zulatudun gizon bat bein baino sarriago ikusi dugu atezain.

Liburutxo onek, *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* (1) deritzaion gufun onek gaitz itsaskor bat du beronen ori-artean. Gaitz ori, izurria (peste) bezela zabaltzen eraza izanañen, ezta ordea ez baztanga ez sukar ustela. Patologia bat ez batean eztugu irakurtzen gaitz onen izenik. *Txukuneria* luke euskeraz izen egokia. Hipokratesek ezagutu balu, *katharinitis* izena zezakean. (*Katharina* badakizute, gizonak, *Purificación* da). Helesponto-aldeko izkeraz *katharinitis* ta gure *txukuneria* erderaz «enfermedad de purismo» bezela dira.

*Y el lenguaje restaurado aprenderán escritores y lectores sin dificultad de ningún género* dio liburuxko onen egile Argentinan Euskaletxeko irakasle dan A. Soloeta-Dimak.

2. Beronen oriak irakurtzen asi ta laxter, erdi aspertua nintzalarik, neronen buruari galde au egin nion. «¿Zer dala-ta bizkañeratu otedidate lan au ira-

---

(1) *Ensayo...* por el P. Soloeta-Dima, capuchino, profesor de Euskal-etxea (Argentina).



kurtzeko arloa neri, onelako asmotarako zaletasunik eztudan oni?» Erantzunik etzetorkidan. Beste orí banna batzuren beñi artu nuenean, pañiriz erantzun au eman nion lengo galde orí. «Ik ere gatzetxo intzanean ireñ zainetan ta batez ere lumatxoan txukuneria izan uelako eta baztanga bein izan duenak bigañenez izaten ezomenduelako, oréngatik eman diatek eri-arteko egikizun au. Ezadi ordea bildur izan, ezadi kikildu, eri onezaz ezaiz ilko ta ekiok gogoz lanari» ta lanari gogoz ekin diot.

3. Ditudan urteon yabe erdizka ere enintzan, onen antzeko lan bat egin nuenean, *Euskal izkindea* ezañi nion izentzat. Sei-zazpi, edo argiroago adierazteko, sei-zazpitzuk ziran nere *katharinitis* ark zituen txukunketak. Bizkaiko *naz-az-da-gara-zara-zaree-dira-ren* ordez nik *nai-ai-dai-gaiz-zaiz-daiz* erabiltzen nituen. *Dot-dok-don...* ta lagunen tokian *daut-dauk daun-dau-daugu-dauzu-daue*.

Nere izkuntza artan *zu* beti zan «vosotros». Eregeak edozein taket diruz yantziri apaingañitzañ eta anima gizentzeko *Conde* ta *Marqués* izenak eman oi dizkie. Nik *Conde* ta *Marqués* oiei itz egiteko *i* artu nuen. Ingelesak beren *thou* ta *you* aiezaz egiten dutena nik bestera egin nuen gure *i* ta *zu* artuta. Aiek Yaungoikoari soil-soilik esaten diote *thou*, gure *i*; *you* aldiz larunbat-iluntzetan bildu oi dituzten whisky-zaleai ere *you* = *zu*. Nere izkinde artan *zu* Jaungoikoarentzakoa zan, beste izaki guzientzat *i*.

Egun auetan batzuk erabiltzen dutenez nik ere *eztaki*, *ezpedi egon*, *ezpaleki*, *ezkoaz*, *etzaitetz* «para el vulgo» utzita, *ezdaki*, *ezbedi egon*, *ezbaleki*, *ezgoaz*, *ezzaitetz* erabiltzen nituen. Arako len aipatu ditudan *daut-dauk-daun-dau* erakutsita gero itz auek ezañi nituen : *diarteaz ezdau laguntzaile biralkoian*



*irabiamen guztiak onelan erakusten* = El vulgo no suele manifestar de este modo todas las conjugaciones del verbo transitivo (1).

4. Gizonak: itz auek idazti nituenean ile-adats osoaren yabe nintzan, ogei ta sei urte zituen nere izan ta izateak. Barkatu beraz. Egia da ta burua zurizten asi-orduko ezagutu nuen, Dodgson euskalariak irakatsita edo, nere izkuntza etzela *Vascuence*, *Azkuence zela*; eta liburu hura argitaratzeko dirua ugari eralki ta fxautu izanañen, nere ikasleen artean urte batez ere enuen izkinde hura sañarazi.

Sar gaitezten orain A. Soloeta-Dimaren txukunketa-arteana.

5. Eun ta irurogei ta amar oñalde ditu A. Soloetaren gutuntxoak eta beste ainbeste bear izango nituke bere eritzi guziak zearo azaltzeko. Oñetarako ezkenuke euskaltzainok izango, ez nik lan ori egiteko ez nere lagunak entzuteko, astirik. Bere irakaspn bikain ta berienak artuko ditut. Lautzuk dira auek nere ustez: Auñena, aditz-muñak (núcleos verbales); bigañena, izenordeko-adizkiak (elementos pronominales del verbo); irugañena, izenorde gizakiak (pronombres personales); laugañena, izenorde erakusleak (pronombres demostrativos).

6. LENENGO GAIA. Aditz-muñak (núcleos verbales) aldatzen dirala ta aldakuntze au inolaz ere ezin onetsi dezakegula, ezin ontzat ar ditzakegula, dio. *El cambio de núcleos... no se puede admitir en buena ley...* (pág. 11). *Etoñi naiz, etoñi dira, etoñi ginan, etoñi bedi*. Bost muñ auen ordez bat artu nai luke A. Soloeta-Dimak, aldatzaka ta beti berdin erabiltzeko aditz-muñ bakaña: *za*. *Flexiones absolutas del presente*

---

(1) *Euskal-izkintza*, pág. 190.



*de indicativo* auk omendira: *etortzen daza* yo vengo, *etortzen kaza* tú, varón, vienes, *etortzen naza* tú, mujer, vienes, *etortzen laza* él viene, *etortzen gaza* nosotros venimos, *etortzen zaza* vosotros venís, *etortzen tzaza* ellos vienen. (Pág. 84). *Kaza* ta beronen lagun bitxi auk aditz bidalkoiez (transitivoakin) ere erabiltzea nai luke A. Soloetak: *ikusten daza* yo veo, *ikusten kaza* tú, hombre, ves... eta *ikusten tzaza* ellos ven. (Pág. 128). Formas absolutas de subjuntivo (pág. 101): *etofi dazan* que yo venga, *etofi kazan* que tú, hombre, vengas eta onela *nazan, lazan, gazan, zazan* ta *tzazan*. Flexiones absolutas del imperativo (pág. 106): *etofi kaza* ven tú, hombre; *etofi naza* ven tú, mujer; *etofi zaza* venid vosotros. Eta onelaxe *za* da beti euskalki beñi auen aditz-muñia.

7. Beste izkera askotan ere muñiak aldatzen ikusten ditugu: batean *quiero*, bestean *queremos*, bestean *quise*; batean *pongo*, bestean *ponemos*, bestean *pusieron*; *quepo*, *cabemos* ta *cupieron*... eta beste eun. Aditz urgazlean berean iru aldakuntze ditu gutxienez erderak: *he*, *había* ta *hube*. Eta au gora-bera erderazko aditza aisa ta berera (cómodamente) bizi da gizonen buruan. Aurak *componió compuso*-ren orde, *quise*-ren tokian *querí*, *puesto-tzat ponido* esan oi dute; baina ezpañ-gainean bizaña erne-orduko, ezpañ-petik erortzen zaizkate *componió*, *querí* ta *ponido* oriek.

A. Soloetak euskeraren leneratzea (restauración) ta euskera leneratua (euskera restaurado) orialde askotan aipatzen ditu. ¿Nork daki, ordea, len, asieran, gure euskera au nola itz egiten zan? Dena dela, txukunketa ta leneratze ori asi-orduko, saialdi bat erderaz egin zezakean liburuxko onen egileak. Erderazko aldakuntze oriek kendu al badira, euskerazkoak ere



asi (len nolakoa zen yakinezkero); erderazkoak ezin badira, euskerazkoai ere paketan utzi. Au irakurtzean Buenos Aires-ko euskalariak esan lezake: *izkera ofau ezdaza deurea* (izkera ori ezta nereea), *erdera ofauren yabe tzazanak ar lazatela sail ofau tzeuen gain* (erdera ofen yabe diranak ar bezate sail ori beren gain). Nik ordea neronen aldetik esango nioke: mundu zabalean izkera bat bada, ezpainez ezpain eri -izkera bezela bizi eztena: antzinako eromañena. Izkera ofetan ere onelako muñ-aldatzeak ugari dakuskigu. Gure *eraman* izkera ofetan *ferre* da. Guk eztu-gu ofen muña aldatzen: *daramat, neraman, eraman dut*. Latinoak aldiz *fero, tuli, latum* iru muñ dituzte. Guk *zerbait dagit* eta *ofetara egina naiz* esan oi dugu, aiek aldiz bi muñez *facio* ta *fio* diote. Izkera au Elizan nolabait bizi da. A. Soloetak eta nik ezin dezaiokegu arotz bati bezela izkera ori so egin (begiratu), gerontzat ar dezakegu. Asi gaitetzten *Lógica*, berak ain maite duen *Lógica* ori, latin-izkeran sartzen eta auferantzean *fero tuli latum*-en ordez *fero-ferivi -feritum* esan dezagun; *facio* ta *fio*-ren ordez *facio* ta *facior*; *cado* aditzari ere bere bi aldakuntze *cecidit* ta *cassum* oriek kendu ta *cadivi* ta *caditum* ezafi.

Onezaz gainera beste oar bat egin dezakegu. Euskeraz bi aditz dira soil-soilik muñ aldakordunak, bi urgazleak: *izan* ta *ukan*. (A. Soloetaren ustez bakar bat dira auek.) Latinez eunetik gora badirala esango nuke muña aldatzen duten aditzak. Au gora-bera inork, nik dakidala, etzuen inoiz gogotan artu izango aditz orietan muñ bakaña erabili bear dela. *El cambio de núcleos no se puede admitir en buena ley* esan duen tokian *el cambio de núcleos es y ha sido irremisiblemente admitido* ezafi bear zuen bere liburutxoan gure urgazle Buenos-Aires-koak.



8. BIGAREN GAIA. Izenordeko-adizkiak (elementos pronominales del verbo) irutzuk dira: *adizkizunak* (objetivos), *arkiak* (recipientes) eta *egileak* (activos). *Nator* ta *nakus*, *az* (Eronkarin *yaz*, Benapañoan *hiz* tú eres) ta *oa* (Napañoako alde batzuetan *yae* tú vas), *dator* ta *dakus*, *gatoz* ta *gara*, *zatoz* ta *zara*, *zatozte* ta *zare* naiz *zarete*, *datoz* ta *dabilz*; eta gainera *zetořen*, *betor* ta *letorke*. Or dira lenengo adizki izenordekoak, *pasivos*: *n* lenengoa, bigarena toki batzuetan *y*, beste batzuetan *h* (geinetan ezta agertzen), irugañenak *d*, *z*, *b* ta *l*; eta gero *g*, *z* ta beriz irugañenak.

9. A. Soloetak bere lantxo onen 33-garen orialdean *a cinco podemos reducir*, dio, los elementos *especificantes de las terceras personas en uso hoy en euzkera* y son *d*, *z*, *j*, *l*, *tz*; ejemplos: *etortzen da*, *etortzen zait*, *etortzen jat*, *etoriko litzake*, *ikusten deutzazu*. *Tz* au, ezer bada, ezta elemento pasivo, recipiente baizik. Izatez *ts* da, askok *tz* bezela esanären. (*Ts*, *tz* bezela askok ebaki oi dutelako, *tz* idatzi bear badu: A. Soloetak eluke *zagoz* ta *zoaz* ta *zara* oñela idatzi bear, onela baiziz: *sagos*, *soas*, *sara*.) Imperativo-ko *b* (*betor*, *xin bedi*, *eror bitez*) ezta aintzat artu nai gure urgazle onek (1). *J* ori ezta ta bada onelako adizkia. Adiskide-arteko irabiamenean (conjugacionean) toki batzuetan *i* ta *d* alkarñen aldamenean bizi izan oi dira: *diakarkek* (*dakarke*-ren adiskide-artekoa), *diabilk dabil*-en ordez... e-a. Beste toki askotan *d* oñek *i* bañuan artzen du, itsaspidez (*por incorporación*): *ḍakarek*, *ḍabilk*, *ekari ḍok*.

(1) Bonaparteri dafalkiolarik *bai* dala dio *b* ofen itufia. ¿Eta nola da *ezpedi etorri* esan al izatea? Ba condicional denean, *ezpaleki*, *ezpalitz*, *ezpada* esan oi ditugu; baiña *ba* afirmativo denean, ez. Campton bide onean yafi zan, bere maisua utzi ta *será algún pronombre perdido* esan zuenean. *Tratado de afijos vascos* en ikusi diteke *b* au *pronombre* bezela.



Berdin gertatzen zaie *l* ta *n*-ri ere orielako gertaldietan (kasoetan). *Nator* ta *letorke* adiskide-arteaz batzuk *naiatok* ta *laietorket* esan oi dugu, beste batzuk (A. Soloetaren yaioetean ere bai) *ñatok*, *Īetorkek* erabiltzen dituzte. Len aipaturiko *d* ori batzuk *x* bezela, beste batzuk *dx* ta *j*-ren otsez ebaki oi dituzte: *ekari xok*, *dxok* eta *jok*. Beraz *j* adizkitzat artu bear bada, *ñ* ta *Ī* ta *x* ta *dx* ere aintzat artu bear izango ditugu.

10. Adizki egileak (agentes) zeintzuk diran ¿nork eztaki?

1. *d* edo *t*: *darabildaz*, *darabiltzkit*.
2. *k*: *darabilk*.
3. *n*: *darabiln*, *darabilna*.
4. utsa da: *darabil*. Gure egunetako izkelariak esaten duten «desinencia cero» du.
5. *gu*: *darabilgu*.
6. *zu*: *darabilzu*.
7. *zue*, *zute*: *darabilzue*, *darabilzute*.
8. *e*, *te*: *darabile*, *darabilte*.

A. Soloeta-Dimak *pasivos* ta *agentes* oriezaz nas-mas eginik, *d*, *k* ta *n* egile-artetik atera ta aurrealdera ekañi ditu, *kizun* ta *egile* izatera: *etortzen daza* yo vengo ta *ikusten daza* yo veo; *etortzen kaza* tú, hombre, vienes ta *ikusten kaza* tú, hombre, lo ves; *etortzen naza* tú, mujer, vienes ta *ikusten naza* tú, mujer, lo ves. *L* adizkizuna ere bere tokitik atera ta *indicativo* ra ekañi du, adizkizun ta egiletzat: *etortzen laza* él viene ta *ikusten laza* él ve. Egile plural guztiak iretsita, beren ordeaz ta aurre-aldean kizunen tokian *g*, *z* ta len aipaturiko *tz* yañi ditu: *ikusten gaza* nosotros vemos, *ikusten zaza* vosotros veis, *ikusten tzaza* ellos ven.

11. Adizki arkaiak (elementos recipientes del verbo bitzuk dira: batzuk aditz euskoi (intransitivo)-



-arenak; besteak aditz biralkoiari (transitivoari) dagozkionak. Lenengoak, imperativo ta subjuntivoan beintzat, euskalki guzientzat dira batzuk: *begokit*, *begokik*, *begokin*, *begokio*, *begokigu*, *begokizu*, *begokizue* edo *begokizute* ta *begokie* edo *begokiote*. Beste arkaiak transitivoarenak A. Soloetak ama-rengandik ikasi zuen izketan *ki*-ren ordezt *tsi* daukate ta gainera *t*, *k*, *n*, *o*, *gu*, *zu*, *zue* ta *e*: *egin baleust*, *baleusk*, *baleusn* (*baleun*), *baleutso*, *baleusku*, *baleutsu*, *baleutsue* ta *baleutse*. Euskalari aldatzaile onek adizki arkai bitzuok suntsitu dizkigu ta beron ordezt bere za muñari *t*, *k*, *n*, *l*, *gu*, *zu* ta *tz* gaineratu dizkio. Onela: *ikusten dazak* yo te lo veo, hombre; *ikusten dazan* yo te lo veo, mujer; *ikusten dazal* yo se lo veo, *ikusten dazazu* yo os lo veo, *ikusten dazatz* yo se los veo.

12. Mutilko nintzan egun zuri aietan gizon bat ezagutu nuen nere yaioferian, zerbaitez ariturik zegoanean auxe baino besterik esaten etzuen *gizonak*, *gizonak*, *gizonak*, *gizonak!* eta, bere arimena andia zenean, asnasa beria artu ta atsa galduarte beriz ta beriz *gizonak*, *gizonak*, *gizonak*, *gizonak!* A. Soloetaren egikizun au ulertu al izan balu, zazpi atsaldi artuko edozituan, bere itz maite ori ogei ta zortzi bider gutxienez esateko. Ez, izkerak eztira, emakumen apaingariak bezela, zartu ta maiztu ditezenez, azpikoz gainera ta gainekoz azpira yari ta erabiltzekoak.

13. IRUGAREN GAIA. Gure urgazle urez andikoak (ultramarino) *sustantivos nominales* izendatzen ditu, nik nere Katharinitis artan, EUSKAL-IZKINDEAN, Balmesi yaraikiz, *nombres locutivos* -en izenaz erakutsi nituenak, edozein liburutan *pronombres personales* deritzaian *ni*, *i*, *a* (hura), *gu*, *zu*, *zuek* eta *aiek*: *sustantivos nominales*. Eta gai onetzaz luze ta zee ekin-



ondoan, 58-gaíen orialdean, itz auek idatzi ditu: *Hemos probado, al menos intentado, que los sustantivos nominales en euzkera son: deu yo, keu tú, varón; neu tú, mujer; leu él, geu nosotros, zeu vosotros, tzeu ellos*. Soloetak, beste norbaitek bezela, *eu ori eztu zuzen ulertu. A siete se reducen*—dio 17 gaíen orialdean—*los sustantivos nominales en euzkera* Son los siguientes: NEU, EU *masculino*, EU *femenino*, A, GEU, ZEU, AEK. Las formas transcriptas pertenecen al dialecto bizkaino; las correspondientes a los demás dialectos son *ni, i o hi, ura o hura, gu, zu, aiek o hek*. Bizkaieraz ere erabiltzen ditugu *ni, i, gu, ta zu. Neu, eu, geu, ta zeu* beste euskalki batzuetan ere noizbeinka ta gertaldi (caso) batzuetan entzuten dira: *Neure* da geien irakurri oi duguna. Gainera *ni ta neu, i ta eu, gu ta geu, zu ta zeu* ez tira zentzukideak (sinónimos). *Neu, eu, geu ta zeu* intensivos dira: *yo mismo, tú mismo...* ta abar. *Eu* onen yatoría beste nonbait *Tratado de afijos vascos* -en agertu dudan arén, emen ere zerbait esan dezagun. Euskalki askotan *vocal* arteko *r* yan egin oi dugu: Lapurdin *aiko da*, Bizkaian *guk be bai*, Gipuzkoan *bai nik ee: aiko, be ta ee* oriek *ariko, bere ta ere* dira. *Er* artizki (infijo) — aren bidez eratzen dira pronombres intensivos auek: *nerau, erori, bera, gerok, zerori ta zerok* eta *berak*. Bizkaian, len aipaturiko laburpen orén bidez, *nerau* esan-beaíean, *neu* esan oi dugu eta gero *neu* onen antzera beíraztu ditugu beronen lagun zar oriek; onela: *eu, geu ta zeu*. Uts andia da, beraz, *eu* ori aintzat eta ointzat artuz *sustantivos nominales* beíi oriek tankeratzea. ¿Zer dira, ordea, zuztraiz *deu yo, keu tú, varón, neu tú* mujer, *leu él ta tzeu* ellos? Eñiaren esakeratxo bat aotan artzea bide bazait, zilegi badut, naste-boíaste



bat dala esango nuke. *D* ori egiaz erderazko *yo* bezela da aditzean, bainan atzetik, aurretik ez: *agente* da. Paciente denean *n* esan oi da Euskaleñi guzian, euskalki orotan, nonnai ta noiznai: *nago, nator, noa, naiz, nakus, nakar...* *K* ta *n* oriek ere erderazko *tú* dira aditzean, gizakume ta emakumea, bainan egile bezela atzizkitzat, sufijo diralarik darabilzkgigunean ta darabilzkgigunetan, beti. Euskerak eztu bigařen adizkizun (paciente) ori aña ala emea den adieraztén: *ATOR tú, varón, vienes* eta *tú vienes, mujer*. ¡*Leu ta tzeu* él ta ellos dirala! Nai duenak irakur beza beñiz lentxeago *l* ta *tz* onezaz azaldutakoa.

14. LAUGAÑEN GAIA. Izenorde erakusleak (pronombres demostrativos) ere aldatu nai lituzke gure lagunak. *Los demostrativos hoy en uso se reducen a los siguientes*, dio 158-gařen ofialdean: *au, aur, este; hori, ori, ese; a, ura, hura, bera*, aquel. Lenengo bien artean *gau, kau* ta *haur* ere sartu bear zituen; bigařenen artean *gori* ta *kori* ere bai; bainan ¡ots! isiltasun oriek eraman ditezke. Irugañenen artean *a ura* ta *hura*-ren zentzukidetzat, berdintzat, *bera* ezartzea: *au* ez, onetsezina da, artu ezin dezakeguna. *Bera* a-ren intensivo dugu *aquel mismo* edo *él*. Beste biak ere badituzte intensivo auek: *au*-ren intensivo *berau da, ori*-rena *berori*.

Geroxeago (1) A. Soloetak auxe dio: *En bazkuentze* (2) *son bien conocidos los adverbios de lugar EMEN aquí, OR ahí, AN allí. Prefijando esos adverbios al elemento genérico AU, resultarían demostrativos tan claramente especificados, que el menos*

(1) 160-gařen ofialdean.

(2) A. Soloeta-Dimak bere lan onen afealdean *bascuence* ta *euzkera* dakarzki gure mintzoaren izentzat. Azkenaldean *euzkera* ta maixko *baskuentze* ta *bazcuentze*.



*versado en euzkera los distinguiría al instante de otros términos gramaticales: emau este, oñau ese, anau aquel. Itz bitxi auen pluralizat EMAUEK, OÑAUEK, ANAUEK erakutsika gero oar auxe dakar bere lanaren azkenaldean. A mi juicio, EMAUE, OÑAUE, ANAUE, desprovistos del sufijo k, significan estos, esos, aquellos. No creemos nosotros que la k sea un elemento pluralizador ni en demostrativos ni en sustantivos, no obstante de saber que se le da ese destino.*

Jesusen pizkundera (resurrección) Apostolu batek ikusi gabe etzuela sinetsiko (sinistuko) esan zuen: *nisi videro, non credam*. A. Soloeta-ren azken-epai oriek ikusita, askok esan dezakete: *etiam videndo non possum credere* - ikusita ere ezin sinetsi dugu gizon batek inoren laguntasun gabe oñelako zer gaitzak asmatu lezazkeala. 1.º EMAUE, OÑAUE, ANAUE estos, esos, aquellos adierazten dutela. ¡Ori baino ez! Zuk nai baduzu, baita Sem, Cam eta Japhet ere. 2.º etzuela sinesten k askotasun-gaia (*elemento pluralizador*) izaiea. ¿Entzun oteditu iñork, iñoiz, iñon k gabe esakeratxo auek euskeraz: *estos hombres, esas pieles, aquellas cabras?* A. Soloetak berak entzun ta naiz irakurri baldin baditu, esan bezaigu ¡otoi! nori entzun dizkion, non ikusi dituen.

Izenetan k onek askotasuna iragartzen oteduen ala eztuen *Tratado de afijos vascos* -en, *zortzigarren ageñaldian* (Kapituluan) azaldua izango da. An ikus dezake irakurleak.

15. Euskalari berizale txukuneridun-artean urutiren yoan zaiguna A. Soloeta dela uste dut. Oñetarako dituen kemena ta zaletasuna aundiak izanañen, etzen noski bide legunetik ainbeste irtengo, aurretikoak izan ezpalitu: nerau bat, nerekin bateratsu besteren bat eta añen ondoren eli osoa, berizale-mordo andi



ugaria. Eun berikeri aipatu gabe utzita, batek oraintsu Euskaltzaindi onen egun auetantxe yakin-arazi dizkigun bat edo bestetxo azalduko ditut. *Seme* eztela «hijo» dio, *sein eme* dela, «hija» dela; *senar* eztela «marido» *sein-ar* edo «hijo, infante varón» dela, *alaba* eztela «hija», «amo poderoso» dela, gobernadore naiz Alkate bezela; *emazte* eztela «esposa»... eta onelaxe beste txukuneri irigari batzuk azaldu dizkigu (1).

Askok uste izan lezakete lengo gizaldiak gure aubaino obeak izan dirala euskerarentzat. Lana, lan askozaz gutxiago egin zuten gure asabak. Gainerakoan orain euskerak beronen eraietan izurria (peste) badu, orduan ere izurria zuen: orain txukuneria (Katharinitis), orduan... burua austen ari izanta ere, etzait otu, etzait burmuñ-arteaz erne euskerazko itz oretarako egoki den bat; erderaz esan beariko: *panvasquismo*. (¿*Oroeuskera* ala *oroeskaleri* izendatu otenditeke gure asaben eri au?).

Larāmendi ta Astarloa orduko euskalari entzutsuenak nonnai zekusten euskera. Astarloak Paradisuan ere ikusi zuen; eta berak zekusena guri ikusarazteko banan banan zeinbatu zituen euskerak bere ustez dituen letrak: 28; interjecciones, onenbeste; orenbeste irabiamen (conjugaciones)... eta abar; gero *silogismo* bat egin zuen, ia zortzireun ofialde dauzkan silogismo: *discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*. «El idioma primitivo debió tener veintiocho letras (berak lendik euskerari zeinbatu zizkionak), tres interjecciones monogramas y diez poligramas, 122 conjugaciones corteses... etc.» au zan bere *proposición mayor* esate zaiona: *Proposición menor* onelan yañi zuen:

---

(1) Ikusi EUSKERA Irugafen urtea, 20-gafen ofialdea.



«*es así que el vascuence tiene veintiocho letras, tres interjecciones monogramas y diez poligramas, 122 conjugaciones corteses... etc., luego el vascuence es la lengua primitiva*».

Larramendiren iztegia zabalduz nonnai ikusi dezazke *panvasquismo* orien atzak, markak: ESTANDARTE ta NAIBE artuko ditugu erakusmentzat. ESTANDARTE es voz *bascongada*, dio Larramendik: *o de ESTUANDA ARTE, que significa está en aprieto hasta tanto o entre tanto y así lo están los enemigos mientras no ven abatido el estandarte contrario; o de EZTANDA ARTE, que significa hasta reventar y con tal tesón le han de seguir los soldados y mantener el alfez.*

NAIBE es voz *bascongada*, NAIEA, aunque no la usamos, de NAI querer y voluntad y PE, PEA, debajo, inferior; y a los naipes les cuadra el nombre porque debajo o en la parte inferior están las figuras o palos y se reparten quedándose ocultos y debajo; y porque esto excita y se junta con el deseo y querer vencer y ganar, bien se les dió el nombre de naipes. CARTA y en adelante NAIEA. Azken-itx auek «y en adelante *naiea*» lenik irakuñi nituenean, pariri gozoa eginez, neronen ustetxo bat gogoratu zitzaidan.

EUSKAL-IZKINDEA egin nuenean, Larramendik bezela «*en adelante onelaxe izango da Bizkaiko euskalkia*» enituen itz auek liburu artan ezañi; baina neronen buruari esaten nion: ire ikasleak ire asmo auek ikasi ta zabaltzen asitakoan, urte batzuk bañu gaurko euskera sastua, Bizkaian beintzat, garbi-garbi, txukun txukun ta yaio zenean bezain txau ta txuri yañko zaigu.

Aldatzaile beñizale guziak au uste izan oi dute, elirake bestelan aldatzen asiko.

16. Eñiak onelako aldaketak nola artzen dituen,



obeki esateko, nola ezfituen artzen erakusteko, bururatu ditzagun al izate andiko gizon batzuk onelako asmoetan izan dituen porot (fracaso) batzuk.

Tiberius eromaren agintariak izketan ari zen batez uts bategin zuelarik, bere mendeko Capito bere alde yari zen. Beste batek, Marcellus-ek, Capito-ren labankeri arzaz sapusturik; *Capito gezurti bat da*, esan zuen; bada zuk, Cesar, len eromar ez tiran gizonak eromartzeko eskubidea izanaren, latinezkoak ez tiran itzak ezin latinezkotu zenezazke.

Beste gertalditxo bat, Constanza-ko Eliz-batzar ots andikoan yazo zan. *Videte Patres*, esan zuen Segismundo agintariak, *Videte Patres, ut eradicetis SCHISMAM hussitarum*.

—*Serenissime Rex*, gaineratu zion fraile batek, *schisma est generis neutrius*. — ¿Nola dakizu ori? galde egin zion eregek.—Alexander Gallus-ek dio.— ¿Nor da Alexander Gallus?—Bakartar (monje) bat izan zen.—Ni, aldiz, Erómako agintaria naiz; eta, uste dudanez, Erege baten itzak bakartar batenak ainbat balio du.

Alarik ere *schisma* itz ori, lenago zen bezela, *generis neutrius* da geroztik ere. Beste bi gertakizun labur edatsi (esan) ditezke, arirakoak, egokiak eta erege-*ezpañetatikoak* auek ere. Alemaniako agintari andi Friedrich (Federico) bigarenak bere eri-izkera etzuen maite. Bein bere ingurukoai esan zien: Aleman-izkerak beronen aditz guzien azkenkitzat *n* du: *denken, sagen, wirken*; eta itsusi dugu ori. Latinak duenez *e* bear luke biguñgaritzat: *deneke, sagene, wirkene*. Agintariaren ustea ta gogoa ta agindua gora-bera lenagoko *denken, sagen, wirken*, orain ere ala dira.

Gu aur yaioberi edo beintzat mutilko kaltza-motz ginalarik, Eugenia Frantsesen *emperatriz* zenak zau-



ta (yan-edan) andi baten bitartean babeñunak adierazi nairik, *les haricots*, h-ren ats utsezko otsa aintzat artu gabe *ledzaricó* esan omenzuen. Bere inguruko gefi-biguñaak labankeriz, uste dedanez, gainerako egunetan berak bezelaxe *ledzaricó* izendatzen omenizutzen gure babeñun-indirartxoak. Bainan ango izkeraz egoki mintzo oi direnak, ordurarte bezela, *le'haricó* entzun eragiten dute.

Lau eñege aiek ezin zezaketena ¿guk, gerantxo auek, egin otedezakegu? A. Soloetak bere aldakuntze ta txukuneri orietan egi utsa erein balu ere, efi baten izkera ezta alor bateko arto-gari-olo-sekaleak bezela aldatzen.

17. Gizonak noizean beinka fara-puxkat ere egin bear du ta nere yaioteñiko bi gertakizuntxo edatsiko ditut. Lenengoaren *protagonista* nerau nintzan. Nere *katharinitis* hura labetik atera beñi nuelarik nere eñiko alkateak ots egin zidan: San Antolinez itzalditxo bat egitera yoan neñdila. Nik nere aldaketa *etoñi dai* ta *esan daugu* ta beste beñikeritxoak eñurik etzuen San Antolini zinzilizka yañita, tipi-tapa tipi-tapa Bilbotik itsasaldera yoan nintzan. Nere itzaldi bitxia egin -ondoan bazkaltzera ninoalarik, auzoko emakume bati itz auek edo beron antz-antzekoak entzun nizkion, adiskide batekin txir-txor izmizka ari zelarik:

*Potxua ¿entzun dozu gaurko sermoia? ¡Alakorik!  
¡Nok esan ori eñiko semia danik!*

Ogei ta sei bat urte geroago euskalari sutsu, txukuneriz burua aspaldion yoa duen elizgizon argi ta iztun etoñitsu bat agertu zan ango bertako Elizan, itzaldi batzuk aste guren batez (aste santu batean) egiteko asmoz. Ostiralez egin zuen itzaldian Jesukisto gure Jauna bere amarekin ta ikasle Yoanerekin ika izketan agertu zuen.



*Emakumia: or daukan ire semia. Semia: emen daukak ire Ama.* Itz auek entzun zituen-belañiak aurretik minduak ziran ainbeste *Josu* ta *Miren* ta *Jon deuna* ta *Uzkurtz* ta *Donoki* ta *txadona* ta *lagi zaña* eta *euzkera* ta *irugañen egunan* ta beste amaika itz ta esakera beñi ta naspilduz. Elizatik irten ziranean, beste eraskin (comentario) latz askoren artean, auxe esan zuen ařantzale batek: *Txo ¿sermolari ořek baru eñen dabela uste dok ik? Edanda dxatok ori, edanda: ez esan ezetzik.*

Itz zakar auek aipatzea barka bezait arako iztun ark. Iketa gure egun auetan ere beronena du euskerak, etzaigu galdu izkuntze eder ori; bainan eñiak eztu bein ere erabiltzen adiskide-arteon izan ezik; Elizan entzuten duenean, beñi izan oi da deabruari naiz pekatuari aurpegi artzeko. Ořegatik nabarmen ta iguingaři deritzaio eñiak Jesusek amarekin ořela itz egiteari. ¿Zer ezoteluke esango, *onau* ta *ořau* ta *anau* ta beste bereak eztituen itz yostagaři oriek belariratuko bagenizkio?

18. Yaunari eskeřak ez nere *Euskal-izkindea* ez A. Soloetaren *Ensayo de la unificación* eztira eñiaren eñaietara elduko. Guk gure asmo ořezaz liburu bana egin beařean, *Euzkadi* ta *Jel* ta *Euzko deia* ta *Jaungoiko-zale* bezelako aldiroko paperetan gure amets oriek gutxika ta poliki erein bagenitu, *euzkerak* eta *txadonek* eta *Miren Koldobikek* eta *zago* ta *zator* ta *zabil*-ek eta beste eun berikerik egindako kaltea egingo zuten bai gure lan oriek ere.

Nik bezela beste edozein euskaldunek oartu izango du euskaldun geienen arteon gertatzen dan zertxo au. Erderaz aisa badakite ta euskera berdintsudunak ezpada, berealaxe yotzen dute erderara, alkar ulertzea eřazago baitute. ¿Zer ezotelitzake gertatuko *emau*, *deu kaza*, *tzek tzazal* ta beste len azaldutako asmo



bitxi oriek or-emenka erneak eta ez garatu bai garatu balira? Iguinez ta ulerpidea ta eraztasuna nairik edozeinek yoko luke erderara. Yaungoikoak yagon deza-la gure izkera zar maitea aipaturiko bi liburu oien eta aipatu gabe utzitako batzuengandik: bestelan eun, befeun urte baino lenago liburu oriek berok euskera-ren il-yantziak (la mortaja) izango lirake.

19. Len esan dut A. Soloeta arlo onetan beste batzuen ondoren dabilela. Bere liburutxo onetan irakurtzen ditugan *nagaron*, *nilan*, *dapoz*, *dapozdan*, *genafen*, *zarten*... eta beste asko besteren batengandik ikasi ditu. Eta orain galdetxo bat euskaltzainkide maiteoi. ¿Baotedakizute itz orien zentzuna zein den? Nik beintzat erderazko itza bakoitzaren ondoan irakuri ezpanu, enuen igafi al izango. *Nagaron* subjuntivo de *igaro* omenda; *nilan* yo moria, *dapoz* se alegra edo beste onelako zeren bat. Gure urgazle Soloetak izenorde bitzuk artu ditu aldakizuntzat: giza-kizkoak (personales) eta erakusleak (demostrativos). Beste norbaitek kopurugaiak (numerales) ar ditzazke oretarako. *Eka* da guzien sustraia ta oina. Sanskrit zañak badu *eka* ori, guk ere gure *amaka*, *ameka*, *amaeka*, *amaikan* agiri-agirian dakusku; eta A. Soloeta-Dimak bere *za-tik daza* ta *kaza* ta *naza* ta *laza* bezela, eta bere *eu-tik deu* ta *keu* ta *neu* ta *leu* ta *tzeu*-ren antzera, beste berizale orek onela egin lezake bere kopurudia: *eka* uno, *beka* dos, *zeka* tres, *deka* cuatro, *geka* cinco, *yeka* seis, *keka* siete, *leka* ocho, *meka* nueve... Bidenabar greziañen *kepta* gure *keka*-ren aldakuntzea oteden esan lezake, aien *deka* eztela «diez», berak uste dutenez; gure *deka* leneratua edo restaurado bezela «cuatro» dela; eta gero batean «el euzkera hoy en uso» bestean el «bazkuentze primitivo» aipatuz, auñera bilduñik gabe.



20 Onelako lan bat burutik burura eramateko  
¿zer bear da? Gogaldi ona (umore ona) auñenik, astia  
ere bai, gainera odeitan bizi ta azkenez A. Soloetak  
duen buru argi ta asmutsua. Bizkaieraz esan oi dugu-  
nez, dabenari dabena: *suum cuique*. Buenos Aires-ko  
euskal irakasleak gutuntxo onetan guk edereñsi ta  
aintzat artu ezin ditugun irakaspén asko agertuañen,  
lan onak izan ditzazkean sustrai mamintsu ekarkoña  
ere badarakusku. Askó irakuñi du, euskerazko ta eus-  
kereazko lan, beredin izkeratan egindako lanak eza-  
gunak zaizkio. ¡Ots!

Nik ere nere txukuneria utzi nuen ta bera ere, eri  
ori utzita, sendatu bedi, ta ar beza beñiz ta beñiz  
eskuetan bere egatsa (idaztortza, luma) eta nik nero-  
nen aldetik bere lan beñi sendo sakon oriek eta beren  
egilea goratzeko itzaurietxo bat edo beste atseginez  
egingo nuke.

Bilbon, 25-12-1922.

---